

7.3. REALIZACIÓN DE COPIAS DE SEGURIDAD (BACKUPS)
7.3. SEGURTASUN KOPIAK EGITEA (BACKUP-AK)



¿POR QUÉ DEBO REALIZAR UNA COPIA DE SEGURIDAD DE LOS DATOS DE MI EMPRESA?

ZERGATIK EGIN BEHAR DUT NIRE ENPRESAKO DATUEN SEGURTASUN KOPIA?

Independientemente de la actividad empresarial que se desempeñe, es común almacenar en formato digital una cantidad significativa de información relativa a la clientela, empresas proveedoras, facturación,... Datos que, en la mayoría de las ocasiones, son de una importancia "vital" para el funcionamiento de la empresa; representando su pérdida una catástrofe difícilmente superable...

Por ello, es imprescindible desarrollar acciones encaminadas a posibilitar la recuperación de dicha información en caso de accidente o error.

... este era el "mensaje" que intentaba transmitir Lucía López, encargada de una empresa de mantenimiento de sistemas informáticos, a Koldo Uriarte, administrador de una asesoría fiscal cliente de ésta.

Anteriormente, la informática ya logró convencer a Koldo de la necesidad de invertir en determinadas medidas que garantizaran la estabilidad y seguridad de los seis equipos informáticos con los que contaba la asesoría: adquisición de un antivirus y un firewall; promoviendo así un sistema que pudiese afrontar "ataques" provenientes de virus informáticos o redes externas (como Internet).

Sin embargo, aún existían "peligros" que debían ser minimizados cuanto antes. Lucía insistía que, a pesar de las medidas implementadas en la red de la empresa, los ordenadores podían fallar y, de hecho, así sucedía con relativa frecuencia (aunque se solventaba rápidamente). La informática "recordaba" a Koldo que, en ocasiones, pese al esfuerzo y dedicación en implementar las mejores medidas de seguridad o los antivirus

Edonolako enpresa jarduera egiten dela ere, informazio kopuru handia (bezeroei, enpresa hornitzaileei, fakturazioari, eta abarri buruzkoa) gordetzen da formatu digitalean. Datu horiek, gehienetan, "hil edo bizikoak" izaten dira enpresaren funtzionamenduan; informazio hori galtzea izugarritzko hondamendia izan liteke enpresarentzat, eta zenbaitetan, gaindiezina.

Horregatik, ezinbestekoak dira istripu edo akats baten ondorioz galdutako informazioa berreskuratzeko aukera ematen duten prozedurak.

... "mezu" hori eman nahi zion Lucía Lópezek, sistema informatikoen mantentze lanak egiten dituen enpresako arduradunak, Koldo Uriarteri, haren bezero zen aholkularitza fiskal bateko administratzaileari.

Horren aurretik, informatikako teknikariak lortu zuten Koldok onartzea aholkularitzan zituen sei ekipo informatikoen egonkortasuna eta segurtasuna bermatuko zuten zenbait inbertsio: antibirus bat eta firewall bat erosi zituen. Era horretara, birus informatikoetatik edo kanpoko sareetatik (Internetetik, esaterako) zetozen "erasoei" aurre egiteko sistema bat lortu zuten.

Hala eta guztiz ere, "arriskupean" zeuden oraindik, eta arrisku haiek lehenbailehen murriztu behar ziren. Luciak behin eta berriro esaten zion Koldori enpresako sarean implementatutako neurriak hartu bazituzten ere, ordenagailuek huts egin zezaketela, eta oso maiz gertatzen zirela horrelakoak (nahiz eta oso erraz konpontzen ziren). Informatikako teknikariak Koldori "gogorarazi" zion, zenbaitetan, segurtasun neurri onenak edo antibirus gaurkotuenak jartzen ahalegin handia egin

más actualizados, sucede que los equipos muestran síntomas de malfuncionamiento, se pierde la información o, simplemente, dejan de funcionar por un error/avería fatal; por ejemplo, debido a:

- Accidentes físicos no relacionados con la informática (incendio, robo).
- Avería de los ordenadores (disco duro ilegible, equipos que no arrancan).
- Borrado de ficheros accidental.
- Instalación o ejecución de determinados programas.

Normalmente, esto sucede sin aviso o alarma de ningún tipo; por lo que los datos ahí almacenados, irreparablemente, se pierden. Por ello, una tarea que debía ejecutarse regularmente –y que no se efectuaba en la asesoría– era la realización de copias de seguridad (backups). Es decir, copias de respaldo en soporte informático (disquetes, Cd's, cintas, etc.) de la información considerada relevante; que pueden emplearse cuando el "original" ya no existe para restaurar el sistema (con carácter general) al momento anterior al incidente.

Sin embargo, Koldo "presentaba" dos de los factores más comunes que explican la "no-realización" de tales copias de restauración:

- Falta de previsión o consideración de un escenario posible de pérdida de datos.
- "Pereza"; muchas veces el cuidado o dedicación que exigen dichas tareas (aunque sean escasos en la mayoría de los sistemas), provoca que se descuide su ejecución.

... las palabras de Lucía parecían aún resonar en el oído de Koldo, cuando se inundó la oficina en la que se ubicaba la empresa y todos los equipos quedaron inutilizados.

No es difícil imaginar la "tragedia" que representó para la asesoría fiscal Uriarte en plena campaña de la Renta, perder toda la información almacenada sobre su clientela en el servidor (el cual guardaba los archivos generados por la aplicación específica empleada para la declaración); y no haber realizado ninguna copia de tal información. En ese momento, pese a contar con parte de la documentación en "papel" (mojado pero legible), la premura de la situación (finalizaba el plazo para presentar las declaraciones) y la imposibilidad de rehacer el trabajo perdido, condujo a un desenlace fatal para la empresa...

La mayor parte de su clientela, caracterizada por su estabilidad a lo largo del tiempo, abandonó sus servicios; desembocando en una profunda crisis y en que el posicionamiento de la asesoría en su mercado de referencia se viese seriamente perjudicado.

A partir de entonces, las palabras de la informática ya no resultaban pesadas o tediosas para Koldo Uriarte, gerente de la asesoría; la lección recibida había sido suficiente...; además, no paraba de pensar que dicha fatalidad podía haberse evitado totalmente mediante la realización de copias de seguridad...

Finalmente, una vez fue asumido por Koldo el carácter principal que las copias de seguridad debían tener en las tareas informáticas de su empresa, y había sido reconocido el papel relevante que jugaban como medida de seguridad informática, Lucía apuntó que, como primer paso, era necesario desarrollar una "estrategia" con respecto a las comentadas copias

eta denbora asko dedikatuta ere, tresnak, zenbaitetan, gaizki funtzionatzen hasten direla, informazioa galtzen dutela edo, besterik gabe, akats/matxura baten ondorioz, ez dutela funtzionatzen; hala gerta liteke esaterako:

- Informatikarekin zerikusia ez duten istripu fisikoen ondorioz (suteak, lapurretak).
- Matxura ordenagailuetan (disco gogorra ezin irakurri, martxan jartzen ez diren ekipoak).
- Ustekabean fitxategiak ezabatzen direnean.
- Zenbait programa instalatu edo abian jartzen direnean.

Hori guztia aurretik abisatu gabe edo alarma hotsik gabe gertatu ohi da; beraz, bertan gordetako datuak galdu egiten dira, eta ez da horretarako konponbiderik izaten. Horregatik, ezinbestekoa da *segurtasun kopiak* maiz egitea (backup-ak) –eta aholkularitzan ez zen halakorik egiten–. Hau da, garrantzirikotzat hartzen ziren informazioaren babeserako kopiak, euskarri informatikoan (disketean, CD-ak, zintak, etab.). Kopia horiek sistema berritzeko (orokorrean) erabiltzen dira, "jatorrizkoa" galdu denean eta gorabehera gertatu aurretik.

Hala ere, leheneratzeko kopiak ez-egiteko arrazoiak bi izaten dira, oro har, eta Koldorenean bi faktoreak agertzen ziren:

- Aurreikuspenik eza, edo datuak galtzeko arriskua kontuan ez hartzea.
- "Alferkeria"; askotan, zenbait zeregin arreta handiz edo denbora askorekin egin behar dira (nahiz eta eskasak izan sistema gehienetan), eta horren ondorioz, ez dira behar adina zaintzen.

... urak enpresaren bulegoa hartu zuenean, eta tresna guztiak ezin erabili gelditu zirenean, Luciaren hitzen oihartzuna behin eta berriro entzuten zuen Koldok bere barruan.

Eraz irudika daiteke nolako "tragedia" izan zen gertaera hura aholkularitzarentzat, Errenta Aitorpenaren garaia zen gainera: zerbitzarian (bertan zituzten aitorpenerako aplikazioak sortzen zituen artxiboak) gordeta zuten bezeroei buruzko informazio guztia galdu zuten; eta ez zuten informazio haren segurtasun kopiarik. Informazioaren parte bat "paperean" zuten (bustita, baina irakurtzeko moduan), baina presaka zebiltzan (aitorpenak aurkezteko epea amaitzear zegoen) eta galdutako lana ezin berregin zitekeen. Horrek guztiak zoritxarreko amaiera ekarri zion enpresari...

Bezero gehienak denbora luzea bazeramaten ere haiek in lanean, eten egin zuten harreman hura. Horrek izugarritzko krisia ekarri zion, eta aholkularitzak erreferentziako merkatuan zuen lekua oso egoera larrian gelditu zen.

Ordutik aurrera, informatikako teknikariaren hitzak ez ziren, jadanik, astunak edo aspergarriak Koldo Uriarterentzat, alegia aholkularitzako gerentearentzat; ikasgai hura nahikoa izan zen beretzat...; segurtasun kopiak egin izan balitu... ez zen halakorik gertatuko, zioen behin eta berriro bere buruari...

Azkenik, Koldok onartu zuen segurtasun kopiek lehenetsuna zutela bere enpresaren eginbehar informatikoei dagokienez, eta ohartu zen kopia haiek garrantzizko zeregina zutela segurtasun neurri gisa. Ondoren, Luciak adierazi zion lehen urratsa "estrategia" bat garatzea zela, aipatutako segurtasun kopiei buruzkoa. Horretarako, hainbat alderdi hartu behar ziren kontuan:



de seguridad. Para ello, debían seguirse una serie de consideraciones elementales:

- Plantearse cuál era la información más importante que se almacenaba en formato informático dentro de la oficina; en este caso, con total seguridad, destacarían los datos relativos a clientela, nóminas, facturas...
- Por supuesto, una vez alcanzado tal "consenso", deberían localizarse los archivos, bases de datos o documentos que contienen los datos relevantes. En este caso, el servidor centralizaba y contenía tales datos.
- Por último, realizar un ejercicio de previsión planteándose en qué situación se quedaría la empresa si perdiera la información señalada (... esta tarea ya no era necesaria...).

Por último, a la hora de realizar copias de seguridad, la informática señaló una serie de pautas:

- No era necesario realizar copias de seguridad de todo el disco duro o de las aplicaciones en él instaladas, únicamente había que salvaguardar los datos. No obstante, si se pretendía realizar un backup completo del disco duro de un ordenador (si se deseaba recuperar posteriormente la configuración, los programas instalados, etc.), podían emplearse programas específicos para dicha tarea (crean una imagen, una copia exacta del disco en un momento dado).
- Otro aspecto esencial era la frecuencia con la que se efectuaban las copias de seguridad; en este caso, se aconsejaba su ejecución diaria (dada la periodicidad de inserción o actualización de datos).
- Era aconsejable contar con más de una copia de seguridad como respaldo; si sólo se disponía de una, podía haber cualquier accidente que la destruyera o sufrir un deterioro que la hiciera irrecuperable.
- Asimismo, con el objeto de tener realmente una protección frente a cualquier incidencia (accidente, intrusión,...), se recomendaba la realización de dos copias de seguridad al mismo tiempo (iguales) en el formato elegido (CD, cinta,...), y almacenarlas en una ubicación diferente (garantizando en mayor medida el éxito de una futura recuperación). Por ejemplo, una en la oficina y otra en el domicilio de Koldo el administrador.

- Bulego barruan eta formatu informatikoan gordetzen zen informazioaren artetik garrantzikoena zein zen zehaztu behar zen; kasu honetan, segur aski, bezeroari buruzko datuak, nominak, fakturak... izango ziren nagusiak.
- "Adostasun" horretara iritsi ondoren, garrantziko datuak zer artxibotan, datu basetan edo agiritan gordetzen ziren zehaztu behar zen. Kasu honetan, zerbitzariak biltzen zituen datu horiek.
- Azkenik, aurreikuspen ariketa bat egin behar zen: aipatu-tako informazio hori galduko balitz enpresa zer egoeratan geldituko litzatekeen aztertu behar zen (...ariketa hori ez zen behar...).

Azkenik, segurtasun kopiak egiteko urrats hauek jarraitu behar zirela adierazi zuen informatikako teknikariak:

- Ez zen beharrezkoa disko gogor osoaren edo bertan instalatuta zeuden aplikazio guztien segurtasun kopia egitea, nahikoa zen datuak babestea. Dena dela, ordenagailu baten disko gogorraren backup osoa egin nahi bazen (konfigurazioa, instalatutako programak, etab. berreskuratu nahi bazen), zeregin horretarako programa bereziak erabil zitezkeen (une jakin batean, diskoaren irudi bat, kopia zehatz bat, egiten du).
- Segurtasun kopiak zenbateko maiztasunaz egiten ziren ere kontuan hartu beharreko alderdia zen; kasu honetan, egunero egitea aholkatzen zen (oso maiz sartzen eta eguneratzen baitziren datuak).
- Babes gisa segurtasun kopia bat baino gehiago edukitzea komeni zen; kopia bakarra bazegoen, edonolako istripuren ondorioz kopia hura desagertu zitekeen edo hondatu, eta ezingo zen berreskuratu.
- Bestalde, edonolako gertaeraren aurrean (istripu bat, lapurreta bat...) babesean egoteko, bi kopia hautatutako formatuan (CD, zinta...) eta aldi berean (berdinak) egitea aholkatzen zen, eta bakoitza leku batean gordetzea (etorkizunean berreskuratu behar bazen, seguruagoa zen horrela eginez gero). Esate baterako, bat bulegoan eta beste bat Koldo administratzailearen etxean.



En gran cantidad de casos, las empresas dependen de forma directa de los datos tratados en sus equipos informáticos; a través de ellos:

- Almacenan y controlan sus relaciones con la clientela y empresas proveedoras.
- Llevan a cabo tareas de gestión contable y/o facturación.
- Salvaguardan información confidencial o de alto interés para su actividad.
- Etc.

En definitiva, los ordenadores suponen un pilar fundamental para su negocio y, lógicamente, la pérdida de los datos en ellos contenidos significa un problema realmente grave. En este sentido, las tareas de almacenamiento y creación de copias de seguridad de aquella información relevante, tienen que tener la máxima consideración; siendo ineludible su ejecución programada como garantía de recuperación ante cualquier contingencia.

Kasu askotan, enpresak beren ekipo informatikoetan erabiltzen diren datuen mende daude; horien bitartez:

- Bezeroekiko eta enpresa hornitzaileekiko harremanak gordetzen eta kontrolatzen dituzte.
- Kontularitza eta/edo fakturazio mailako kudeaketa lanak egiten dituzte.
- Isilpeko informazioa edo beren jarduerarako garrantzizkoa babesten dute.
- Etab.

Hau da, ordenagailuak funtsezko oinarria dira beren negozioarentzat, eta horiek galtzen badira, arazo larriak sor daitezke enpresan. Ildo horretatik, garrantzizko informazioa gordetzeko eta segurtasun kopiak sortzeko prozesuak arreta bereziaz egin behar dira; beraz, ezinbestekoa da zeregin horiek era programatuan egitea, edonolako ezbehar gertatzen dela ere informazioa berreskuratuko dela bermatzeko.